

GAZTEENTZAKO JARDUERAK BULTZATZEKO DIRULAGUNTZAK, 2024ko DEIALDIA

OINARRIAK

1. XEDEA

1.1. Deialdi honek honako xede hau dauka: Estella-Lizarrako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena ezartzea proiektuak eta jarduerak egiteko, zeinen oinarritzko helburua izan den aukerak eta baliabide espezifikoak eskaintzea gaztearen integrazio eraginkorra eta parte-hartzailea bultzatzeko Estella-Lizarrako hirian, 2024 urtean zehar.

1.2. Dirulaguntzek honako programa eta jarduera hauek, urtekoak edo unean unekoak, gauzatzeko xedea izanen dute, eta honako gai hauei buruzkoak:

- Lizarrako gazteei lehentasunez zuzenduta egotea eta ez dute inoiz bereizkeriarik ezarriko sexua, arraza, hizkuntza, ideologia, baldintza sozioekonomikoak, etab. direla eta.
- Hirian dauden elkarteak gazteei ezagutarazteko zuzendutako proiektuak, gazteak elkartzea eta boluntario izatea sustatuko dutenak.
- Proiektuak gaztearen txertatze eraginkorra eta parte-hartzailea bultzatzeko gizartearen bizitzan eta komunitadean.
- Aisialdirako jarduerak izatea, hezigarriak badira (hezkuntza ez formala) eta dibertimenduzkoak.
- Proiektuak gazteen mugikortasunerako.
- Kreatibitatea bultzatzen dituzten proiektuak.
- Harremanak, bizikidetza, hausnarketa eta eztabaida bultzatzen dutenak.
- Gizon eta emakume gazteen arteko berdintasuna eta errespetua bultzatzen dituzten proiektuak.
- Ohitura osasungarriak bultzatzen dituztenak aisialdia egitean.
- Gazteei zuzendutako proiektuak hiriarekin zerikusia duten jai-programetan.
- Kirola, artea, elkartasuna, kultura edo zientzia sustatuko dituzten proiektuak, berritzaileak eta gazteei zuzenduak.
- Argitalpenak.

1.3.- Ez dira deialdi honen xedea izanen:

- Estella-Lizarrako Udaleko beste finantzaketa bideetan sartuta dauden proiektuak, halaber gainerako jarduera zehatzak beste administrazio publikoek finantzatzen badute, "Erasmus+" Europako Programarekin zerikusia dutenak izan ezik.
- Eskabidea egiten duen elkarteko bazkideentzat bakarrik diren proiektuak.
- Elkarteen azpiegiturak, lokalak mantentzeko laguntzak, ezta pertsonen jantziak, janariak eta edariak erostea ere.
- Banakako proiektuak eta araututako hezkuntzaren esparruan sarturik daudenak.
- Jarduera pribatuak, irabazteko asmorik dutenak.

2. ONURADUNAK

2.1. Honako hauek dirulaguntzak jasotzen ahalko dituzte, elkarteak, pertsonak norberaren izenean edo beste edozein entitate, irabazi asmorik gabekoak, horien jarduera-eremua Estella-Lizarrako udalerrria bada eta programa honen xedea betetzen badute.

3. AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

3.1.- Laguntzak eskatzeko epea iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren hasiko da eta, oro har, 2024ko urriaren 31n bukatu. **Deialdiak**, 2024ko urtarrilaren 1etik, atzerako eragina izanen du.

3.2.- Baldin eta aurrekontuetan horretarako nahiko kreditua badago, jarduera zehatzen proiektuetarako bigarren epe bat irekiko da, horretarako dagoen aurrekontua bukatu arte.

3.3.- **Eskaerak Estella-Lizarrako Udaleko Erregistro Orokorrean (Sorkunde Garbiaren Pas., 1) aurkeztuko dira.**

4. ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA

4.1.- Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte deialdian parte hartu nahi duten **elkartek**:

a)- “Maria Vicuña” Gazteriaren Etxean emanen den inprimakiaren bidez egindako eskabidea. Inprimakiari honakoa erantsiko zaio:

b)- Entitatearen estatutuak

c)- Identifikazio fiskaleko txartela

d)-Entitatearen Kontu zenbakia diru-transferentzia egin ahal izateko dirulaguntza emateko ebazpena aldekoa bada.

e)-Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako egoeraren batean ez daudela adierazten duen zinpeko aitorpena.

f)- Administrazio eskudunak emandako egiaztagiria zerga betebeharrak egunean dituztela ziurtatzeko, baita Gizarte-Segurantzaren aurrean ere.

g)-Diruz laguntzeko ESKATZEN den jardueraren diru-sarreraren eta gastuen zerrenda sailkatu bat, ESKABIDE EREDUAREN ARABERA.

h)- Proiektuaren/jardueraren kartelak bi hizkuntzak errespetatu beharko ditu eta Gazteriaren Arloaren logotipoa argi eta garbi jarri beharko da. Puntu hau betetzen ez bada, emandako zenbatekoa % 50ean murriztuko da, eta ezin izanen da proiekturik aurkeztu.

Ez da beharrezkoa izanen -b), -c) eta d) ataletan seinalaturiko dokumentazioa aurkeztea, eskatzaileek aurreko deialdietan aurkeztu badute eta aipatu dokumentazioa inola ere aldatua izan ez bada, hau da, aurkeztu bezala jarraitzen duela.

4.2.- Deialdian interesa duten **pertsonak** honako hau aurkeztu beharko dute:

a)-“Maria Vicuña” Gazteriaren Etxean emanen den inprimakiaren bidez egindako eskabidea.

b).-NANaren fotokopia

c). -Pertsona eskatzailearen bankuko kontu-zenbakia diru-transferentzia egin ahal izateko dirulaguntza emateko ebazpena aldekoa bada.

d).-Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako egoeraren batean ez daudela adierazten duen zinpeko aitorpena.

4.3.- **Deialdian interesaturik dauden pertsonak eta dirulaguntza jasotzeko proiektuak aurkezteko argibide, laguntza, orientazio eta aholku zerbitzua behar badute, “Maria Vicuña” Gazteriaren Etxera joan ahal dira.**

5. BALORAZIOA ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK

5.1.- Dirulaguntzak emanen dira Estella-Lizarrako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako ebazpenaren bidez. Udaleko Gazteria Batzordean aldeztu aurretik adjudikazio-proposamena aurkeztuko da.

AURRETIK, DIRULAGUNTZA ESKATZEN DUEN TALDEARI EDO ESKATZAILEEI BATZORDE HORRETARA DEITU BEHARKO ZAIE BEREN PROIEKTUA AZALDU ETA DEFENDATZEKO.

5.2.- Eskaerak baloratzeko ondoren adierazten diren irizpideak hartuko dira aintzat, eskatutako dirulaguntzei lehentasuna, baietza edo ezezkoa emateko. Zerbitzu tekniko ordezkariak emandako kalifikazioaren bidez, osotara 100 puntutik, gutxienez 60 puntu lortu beharko dira, halakorik eskuratzeko.

Aurkeztutako eskaerak lortuko duten puntuazioa izanen da eskuratuko dena ondoren adierazten diren irizpideak aplikatu ondoren:

5.2.1.- **Antolatzaileak eta hartzaileak:**

-Gazteek edo gazte-elkarteek antolatutako jarduerak gazteei zuzenduak: 30 puntu.

-Gazteek edo gazte-elkarteek antolatutako jarduerak, herritarren beste edozein esparruri zuzenduak: 20 puntu.

-31 urtetik goiti duten pertsonak edo gazteak ez diren entitateek antolatutako jarduerak batez ere gazteei zuzenduak badira: 20 puntu.

5.2.2.- **Proposaturiko programa edo jarduera:**

- Proiektuak duen interesa, kalitatea eta berritasuna, deialdiaren xedeari erantzuten badio, deialdi honetako lehenbiziko oinarrian xedaturik dagoena: gehienez ere 40 puntu

- Aldez aurretik hausnartzen den programa edo jarduera honekin onuradun izan daitekeen gazteen kopurua: gehienez ere 15 puntu.

1-50 gazte 5 puntu

50-100 gazte 10 puntu

100 edo gehiago gazte

- Beste diru-iturririk edukitzea, erakunde eskatzailearen ekarpena eta erakunde horrek eginen duen ahalegina beste baliabide ekonomiko batzuk lortzeko: gehienez ere 15 puntu. Gutxienez jardueraren koste totalaren %10a lortu behar da puntuak jasotzeko.

6. GEHIENEO KREDITUA

Dirulaguntzak aurrekontu baliabideetara egokituko dira. Dirulaguntzak emateko gehieneko kopurua ezarriko da lortutako puntuazioaren arabera, 5. oinarrian xedaturiko irizpideen arabera eta honako baremo honekin:

6-a) Urtero errepikatzen diren proiektu puntualetarako 1.000 euro arte.

6-b) Urteko programazioetarako eta horiekin 1.500 euro arte.

6-c) Proiektu berritzailetarako: 2.000 euro arte.

6-d) Gazteria Arloarentzat interes berezia izanen duten proposaturiko jarduerak badira: Defizitaren %100 arte.

7. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK.

Gastu diruz lagungarriak izanen dira diruz lagundutako proiektuen exekuzioarekin zerikusi zuzena izanen dituzten gastuak.

BEZ kengarria ez da inoiz diruz lagunduko, ezta 1.3 puntuan agertzen diren gastuak ere.

a) PFEZ atxikipena duten fakturek, atxikipen horien ordainketak haziendan erantsi beharko dituzte.

b) Kilometrajearen kasuan gehienez ere 0,35 euro onartuko da km bakoitzeko.

c) PFEZren atxikipena duten fakturekin batera, atxikipen horiek ogasunari

egindako ordainketak ere aurkeztu beharko dira.

- d) Sarrerak, zozketak, ikastaroak ..., eta abarren bidez izandako diru-sarrerak, edo tiket salmentaren bidez lorturiko beste diru-sarrera batzuk izanez gero, Erakunde onuradunaren idazkariaren egiaztagiri bat erantsiko da, horretan salmenta kopurua eta sarrera bakoitzaren prezioa adieraziko dira.
- e) Dirulaguntzaren zenbatekoa, 38/2003 Legearen 19. artikulua arabera, ezin izanen da jardueraren kostua baino handiagoa izan, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

8. BETEBEHARRAK

8.1.- Dirulaguntzetako onuradunek honako betebeharrak hauek daukate:

- a) Diruz lagundutako jarduerak gauzatzea.
- b) Diruz lagundu den jarduera justifikatzeko epea 2025ko urtarrilaren 2an amaituko da. Data horretarako proiektuaren memoria, diru sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa eta jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira, horiek ordaindu diren egiaztagiriekin batera.
- c) Diruz lagundutako jarduera gauzatzean gerta daitekeen gertakizun ororen berri eman beharko da.
- d) Egin beharreko egiaztapenak eta finantza-kontrolak onartzea, emandako dirulaguntzekin zerikusia dutenak.
- e) Helburu berbera duten beste dirulaguntzak edo laguntzak lortuz gero, horren berri Udalari ematea.
- f) Udalaren instalazioak erabiltzen badira, bere gain hartuko ditu leku horietan eragindako kalteak eta konponketak.
- g) Jarduera hedatzean, nahitaezkoa izanen dena, Estella-Lizarrako Udaleko Gazteria Batzordearen laguntza aipatuko da, horretarako, Estella-Lizarrako Udaleko logotipoa programetan, iragarkietan eta inprimatuko den gainerako euskarrietan ipiniko da.
- h) Zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, faktura bakoitzeko BEZaren kengarritasunaren inguruan.

8.2.- Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzen aldatzeak emate-ebazpena aldatzea ekar lezake.

9. DIRULAGUNTZA EMATEA

9.1.- Gazteria Batzordeak aurkeztutako eskaerak ikertuko ditu eta dirulaguntzak emateko proposamena Tokiko Gobernu Batzordean aurkeztu. Tokiko Gobernu Batzordeak ebaztuko du deialdia Aurrekontuetan horretarako aurreikusten den diru-sailaren kontura.

9.2.- Behin interesatuei jakinarazi ondoren, 10 eguneko epea emanen da alegazioak aurkezteko.

9.3.- Honelaxe egingen da dirulaguntzen ordainketa: dirulaguntzen zenbatekoaren %80 Udalaren Gobernu Batzordeak onartu eta 30 eguneko epean eta gainerako %20 jarduera guztiak bukatu ondoren eta gastuak eta diru-sarrerak justifikatu ondoren eta Proiektuaren Memoria aurkeztu eta gero, gazteriaren zerbitzu teknikoaren aldeko txostenarekin batera eta 7. klausulak arautzen duenaren arabera.

9.4.- Aurreratutako zenbatekoak egindako jardueran gauzatutakoa

baino handiagoak balira, entitate onuradunak horren gainera jasotako zenbatekoa itzuli beharko luke Lizarra Udaleko kontu orokor honetara: ES82 2100 3694 7022 0014 7719 kontzeptua zehaztuz.

9.5.- Dirulaguntza ezin da izan jarduera antolatzeak sorrarazi duen defizita baino handiagoa.

9.6.- Eskaera aurkeztu duen entitateak dauka diruz lagundu diren jarduerak egiteko ardura bakarra.

10. EZ BETETZEAK

Deialdi hau arautuko da agiri honetan bildutako oinarrien arabera eta horietan aurreikusten ez dena, honako arautegi honetan xedatutakoaren arabera: Nafarroako Administrazioari buruzko Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, eta zuzenbide osagarri gisa, dirulaguntzen gaineko Estatuko Arautegia.

11. JUSTIFIKAZIOA

Aipatu informazioa paperez aurkezteaz gain, euskarri informatikoan ere bidaliko da. (Kalkulu-orria posta elektronikoaren bidez, helbide honetara: juventud@estella-lizarra.com)

GASTUAK

Zk.º	HORNITZAILEA IFZ /IFK	DATA FAKTURA	FACTURA zk	DESKRIPZIOA	ZERGA- OINARRIA	BEZ ez- kengarria	BATUKETA	BEZ kengarria	ORDAINKETA DATA
Aurkezturiko fakturen zenbakiak									
....									
GASTUAK OROTARA									

DIRU-SARRERAK

Zk.º	ZORDUNAREN IFZ /IFK	DATA FAKTURA	FACTURA zk	DESKRIPZIOA	ZERGA- OINARRIA	BEZ ez- kengarria	BATUKETA	BEZ kengarria	ORDAINKETA DATA
Aurkezturiko fakturen zenbakiak									
....									
DIRU- SARRERAK OROTARA									

LABURPENA

	Zenbatekoak
GASTUAK OROTARA	
DIRU-SARRERARAK OROTARA	
DEFIZITA JARDUERA	

12. ZENBATEKOA

Estella-Lizarrako Udalak deialdi honetarako 16.000 euro gordeko ditu. 2024 urteko 33700-489000 "A- 2024000506 Dirulaguntza deialdia gazteentzako jarduerak sustatzeko" diru-sailaren kontura.

**ESKABIDE-ORRIA, GAZTEENTZAKO JARDUERAK BULTZATZEKO
DIRULAGUNTZAK, 2024ko DEIALDIA**

Jn./Andrea:

NAN:

HELBIDEA:

KALEA:

HARREMANETARAKO TELEFONOAK:

E-maila:

BERE IZENEAN EDO ELKARTE HONEN ORDEZKARI GISA:

IFK:

HELBIDEA JAKINARAZPENAK JASOTZEKO:

KALEA

ZKI.

KONTU KORRONTE ZKI.:

KONTUAREN TITULARRA:

AZALTZEN DU

2024ko Gazteentzako jarduerak bultzatzeko deialdia ikusita, Estella-Lizarrako Udalaren Gazteria Batzordearena eta deialdi horretan agertzen diren oinarriak ezagutzen ditudanez

ESKATZEN DUT

Dirulaguntza bat ematea

EUROAK

Honako proiektu/jarduera honetarako:

Proiektu/jarduera horren zenbatekoa orotara

EUROAK

Horretarako, erantsi ditut eskatzen diren agiriak, eta egiazkoak direla aditzera ematen dut.

Estella-Lizarran, 2024eko

aren (e)an

(Entitatearen sinadura eta zigilua)

Emandako agiriak:

☐ a)- IFZ

☐ b)- Entitatearen estatutuak

☐ c)- Administrazio eskudunak emandako egiaztagiria zerga betebeharrak egunean dituztela ziurtatzeko, baita Gizarte-Segurantzaren aurrean ere.

Ez da beharrezkoa izanen a) b) c) eta d) ataletan seinalaturiko dokumentazioa aurkeztea, eskatzaileak aurreko deialdietan aurkeztu baditu.

**ELKARTEAREN EDO PERTSONA ESKATZAILEAREN ARGIBIDE-
FITXA**

Elkarteetarako:

1.- IZAERA JURIDIKOA:

2.- HELBURUAK ETA JARDUERAK:

2-1.- Elkartearen helburuak

2-2.- Azken urtean egindako jarduerak:

Pertsonak norberaren izenean:

1.- ESPERIENTZIA ANTZEKO JARDUERAK ANTOLATZEN

Erantzukizuneko aitortpena

Jn./Andrea.....NAN....., Bere izenean
edo ondoko elkarte honen ordezkari
gisa:.....IFK.....ADIERAZTEN
DU:

Gazteentzako jardurerak bultzatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdiaren oinarriak
ezagutzen dituela, eta

Eskatzaileak dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.
artikulan jasotako egoeraren batean ez dagoela.

Estella-Lizarran, 2024eko.....aren.....(e)an

Stua:.

JARDUERAREN ARGIBIDE-FITXA

PROIEKTUAREN EDO JARDUERAREN IZENA:

JARDUERA MOTA

- ☐ Urtero errepikatzen den jarduera puntuala
- ☐ Jarduera berritzailea
- ☐ Urteko programazioa
- ☐ Gazteria Arloarentzat interes berezia duten jarduerak

EDUKIA / AZALPENA:

LORTU NAHI DIREN HELBURUAK:

ANTOLATZAILEAK ETA HARTZAILEAK:

- ☐ Gazteek edo gazte-elkarteek antolatutako jarduerak gazteei zuzenduak.
- Gazteek edo gazte-elkarteek antolatutako jarduerak, gazteei edo herritarren beste edozein esparruri zuzenduak.
- 30 urtetik goiti duten pertsonak edo gazteak ez diren entitateek antolatutako jarduerak batez ere gazteei zuzenduak badira.
- ☐ Aurreikusitako **Gazte** parte-hartzaileen kopurua:

LEKUA:

DATAK:	
<u>AURREKONTUA</u>	
GASTUAK	
1.	euroak
2.	euroak
3.	euroak
4.	euroak
5.	euroak
6.	euroak
GASTUAK OSOTARA euroak	
DIRU-SARRERAK	
1.- Kuotak _____ x zenbakia	=
euroak	
2. Beste ekarpen batzuk	
	euroak
3. Beste ekarpen batzuk	
	euroak
4. Beste ekarpen batzuk	
	euroak
SARRERAK OSOTARA euroak	
GASTUAK-SARRERAK (DEFIZITA) euroak	

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA

euroak